

Hauteskundeak, igandean

Espainiako Kongresua eta Senatua berritzeko bozak deitu dituzte / 3

Andoaingo auzoak, udan jaietan

Karrikako jaien kronika eta Etxeberrietako, Goiburuko eta Buruntzako festen aurrerapena, hurrengo asteetan. Aiurri.eus gunean, bestalde, argazkiak eta bideoak / 5-9




3x3 saski txapelketa jokoan da Andoaingo Gaztetxean, lagunarteko giro ederrean / 13



Saioa Martinez eta Garazi Jauregi Urnietako Eguzkitan Blai-eko begiraleei elkarriketa / 11

Datorren Aiurri asteakaria, udako oporraldiaren ostean
Irailak 6, asteazkena

Bitartean, udan, **Aiurri.eus** gunean argazkiak, bideoak, agenda eta albisteak



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO NESKA GAZTEAK BURUNTZALDEA

Neska* gazteen baterajotzearen aurkezpena



Usurbilen egin zuten aurkezpena, aurreko astean.

Baterajotzea, urriaren 13, 14 eta 15ean Usurbilen ospatuko den topagune feminista da. Mugimendu Feministatik zaintza-sistema iraultzearen proposamen erradikala mahaigaineratu dugu, greba feminista orokor baterako deia eginez, zaintza eskubide izatea eta lan honen gaineko erabaki gaitasun kolektiboa edukitzea exijituz.

Jada, hasi gara grebaren antolaketan auzo eta herrietan. Ordea, jakin badakigu gazteok beharrezkoa dugula antolaketa propio bat

ere, gure behar eta proposamenek tokia izan dezaten, mundu ikuskera propioa zabaldu dezagun eta iritzi sortzaile izan gaitezen.

Indartsu gaude eta espazio propioak behar ditugu. Horregatik, grebaren aurretik, Euskal Herriko gazte feministontzat espazio bat sortuko dugu. Baterajotze berri batera goaz.

Aurtengo Baterajotzea Usurbilen izatea, horrelako egitasmo bat aurrera eramateko ezinbesteko diren kontzientzia eta baliabideak

ditugun seinale da. Zorteko gara horrelako dimentsioa duen egitasmo bat egiteko gure eskualdea hautatu dutelako, eta eskertzekoa da gudan jarri duten konfiantza.

Izan ere, gure eskualdeak Euskal Herriko neska* gazteen topagunea ahalbideratuko duen bezala, Baterajotzeak izugarriko ekarpena egingo dio herriari.

Batetik, herriko neska gazteok topaguneak eskainiko dituen formakuntzak jasoko ditugu, gure artean saretu eta aisialdi osasuntsu eta

feministaz gozatzeko aukera izango dugu. Eskaintza hau herrian bertan egoteak, asko errazten du neska gazte gehiago animatzea, gure artean harremandu eta elkar indartzea. Eta, feminista den emakume orok ere egitarauaz gozatzeko aukera izango du.

Gainera, herriko talde feminista indartzeaz gain, Baterajotzea Usurbilen antolatzeak herri mugimenduan eragin positiboa izango du, militantzia esparruak mobilizatuz.

Mugimendu feministaren aldarrietako bat sujetu ororen bizitza duinak bermatzea da, herritar guztion bizi baldintzen alde eginez. Horretarako ezinbestekoa zaigu zaintzaren auzia erdigunean jartzea, eta Baterajotzeak honen inguruan hausnartzeko espazioa emango digu, zaintza grebaren inguruko eztabaida eta gako diskurtsiboak lantzea ahalbideratuz.

Euskal Herriko neska gazteek, gure herriarekin duten konpromisoa azaltzeko eskatu digute: herria zaintzeko konpromisoa, marko ideologiko interesgarri bat ekarri, eta arduraz jokatzekoa.

Aipatutakoagatik, herritarroi Baterajotzea babestea eskatzen dizuegu, eta orain arte izaten ari den moduan, behar konkretuak ditugunean laguntza ematea. Eta, herriko

neska* gazte eta emakumeak Baterajotzean parte hartzera animatu nahi zaituztegu, era honetako asteburu polit eta aberasgarri bat elkarrekin ospatu nahi dugulako, eta guretzat hain aberasgarriak izan diren espazioak zuekin partekatu nahi ditugulako.

Eskertuta gaude herritarren aldetik jasotzen ari garen babes eta laguntzaz. Indar handia ematen digu lanean eta borrokan jarraitzeko.

Segi dezagun lanean herritarroi eta feminismoari hainbeste emango digun topagune honen alde, guztion bizitzen alde babestu dezagun herria feminismoz bustiko duen Baterajotzea, egin dezagun denona elkargunea!

Milaka gara auzo eta herrietan lanean gauden neska* gazteak, eta beste mundu bat posible dela sinetsi eta hau eraikitze borrokan gaudenak. Baliatu dezagun potentzialtasun hori utopiak gaurdanik eraikitzen hasteko eta, horretara bidean, Greba Orokor Feminista inoizko indartsuena izan dadin.

Utopiak lehertzeraino, Neska* Gazteok Baterajotzera!

**ZORTEKO GARA
EGITASMO HAU
EGITEKO
GURE ESQUALDEA
HAUTATU DUTELAKO**



Andoainen PCTE alderdiaren aldeko kartelak agertu dira, kanpaina honetan. Hamabi aukera ezberdin daude Kongresurako, hamaika Senaturako. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Udalerrietan, bertako aktore polikoentzat, Udal Hauteskundeetan kanpaina Frantziako Tourra egitearen parekoa da. Hitzordu gorena da, indar guztiak xahutzen direnekoa. Kanpaina eta bozketak amaitu berrikan, korporazioak osatu eta berehala, tokian tokiko aktore politikoei pilatu duten nekea agerikoa da. Uztailean, opor giroan, eginahal berezia egin behar dute euren alderdiak kanpaina berriaren murgiltzeko. Txanpa onean denak abantailatxo morala du. Hori dirudi, EH Bilduko kasuan. Aurkari zuzenen nahia ez da txikia: PSE-EEk EAE mailan irabazi nahi du, EAJ-PNVk bezala. Igande gauean argituko da.

Inguruotan, hedabide handietan egiten da jarraipena. Kanean, interes eskasa antzematen den bitartean. Arretagune bakarra, uztailean 23ko biharamunak du. Batez ere, Espainiak ager dezakeen argazki berrikan. Popularrak nagusituko dira? Ala sozialistak? Ultraeskuindarrak gobernu osatzen ikusiko al ditugu?

Gipuzkoako botoak joera progresista izango du, estatu mailako joeretik urrun samar. Kongresuan eta Senatuan EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiak dira Gipuzkoan bozkatuenak izateko lehian murgilduko direnak. Eta, ondorioz, hautetsi berri gehienak alderdi horien

Aukera zabala, interes eskasa

Udal politikagintzan lehen lerroan murgilduta dauden aktore politikoak ekaineko hauteskundeetan ajea gaintetik kendu ezinik daudela iritsi da Espainiako Kongresua eta Senaturako berritzeko deialdia. Aukera zabala den arren, ez da interes berezia antzematen

artetik aterako dira. Ezin aipatu gabe utzi Sumar koalizioa, ordezkaritza bat lortzeko aukera baitauka. Zailagoa dirudi hori, PPren kasuan.

Estatu mailako hauteskundeak izatean, halere, botoa eskatzen duten alderdien kopurua handitu egiten da. Gipuzkoan, botuemaileek hamabi aukera politikoen artean erabakitzeko aukera izango dute.

Hauexek dira hamabi alderdiak, erakunde ofizialetan argitaratu diren hurrenkera berdinean.

EAE-N EH BILDU, PSE-EE ETA EAJ-PNV ALDERDIEN ARTEAN EMANGO DA LEHIA NAGUSIA

EH BILDU

Txanpa onean iritsi dira, Udal hauteskundeetan emaitza bikaina eskuratu dutelako. Mertxe Aizpurua Arzallus eta Jon Iñárritu Garcia hautetsi izango direla dirudi, eta, hainbat inkestetan, Maialen Urcelay Azpiazu hirugarren zerrendakideari ere hautetsi izateko aukera ematen diote.

PSE-EE

Rafaela Romero Pozo eta Maria Luisa del Pilar Garcia Gurruchaga dira aukera gehien dituzten hautagaiak. Maider Lainez Lazcoz Andoaingo alkate ohia laugarren postuan ageri da.

EAJ-PNV

Maribel Vaquero Montero urnietarraren aldeko apustua egin du alderdiak, eta Joseba Ando-

ni Agirretxea Urresti Kongresuan ari da egun.

PP

Sozialistak presidentziatik kentzeko aukera handiak dituztela dio demoskopioak. Gipuzkoan, izatekotan, Joana Arce Gorostidi litzateke akta eskuratuko lukeen hautagaia.

FRENTE OBRERO

Mikel Mencos Frechilla da Gipuzkoako hautagaia. Alderdi berria da, eta 2022an alderdi politiko bilakatzea erabaki zuten.

HERRIZ HERRIKO EMAITZAK AIURRI.EUS WEBGUNEAN ARGITARATUKO DIRA, IGANDE GAUEAN

PML alderdi marxista-leninista aurkitzen da, sorburuan.

PACMA

Asier Esparza Billalabeitia da Gipuzkoako hautagaia. Estatu osoan milaka boto lortzen dituzte, ordezkaritza ez.

VOX

Andres Paramio Junquera da Gipuzkoako hautagaia eta euren aldeko pankartak agertu dira eskualdean. Gizarte osoari eragiten dioten hainbat eskubideen aurka jotzen dute.

PCTE

Euskadiko Langileen Alderdi Komunistaren hautagaia Eneko Lanz Llamas da. Honako hauxe euren goiburua: "Botereak bere alderdiak ditu. Zuk PCTE duzu". Espainia mailan Astor Garcia da hautagai nagusia, eta alderdiaren lider argia. Bera izan zen, duela bospasei urte, PCPE alderdia uzteko eta berria sortzeko buruzagietakoa.

AULKI ZURIAK

Luis Maria Ormaetxea usurbilgo alkatea izan zen, EArekin, 2003-2007 agintaldian. Hamaikabat alderdiko zinegotzi izan zen, gero. Azken urteotan politika ordezkatzailearen aurka zuzen-zuzen jotzen duen mugimendua eratu da. Oraingoan, Gipuzkoako hautagaia da. Euren asmoa: botoa jaso, lor dezaketen ordezkaritza bete gabe uzteko.

PUM+J

Bidezko mundurantz du izena alderdiak, euskaraz. Hautagaia Cristina Elcuaz Arana da. 2004an sortu zen eta jomugan dute pobrezia aurka ekitea. Hauteskunde prozesu ezberdinetan parte hartu izan dute, ordezkaritza lortu gabe.

RECORTES CERO

Ezkerreko hauteskunde-aukeratza hartzen da. Murrizketen aurkako mugimendu sozial, kultural eta politiko solidarioratza defendatzen dute euren burua. Hautagaia, Gipuzkoan, Jordi Martinez Rigol da.

SUMAR

Maria Pilar Garrido Gutierrez Podemoseko kongresukidea da, egun. Ordezkaritza lortzeko borrokan murgilduta daude. Ez dirudi Podemosen emaitza onetara iritsiko direnik.



Aiurri.eus gunea, egunero zabalik



Albistek



Bideoak




Argazki-galeriak



Kirol albistek



Atal bereziak: Udako jaiak



Atal bereziak: Frantziako Tourra



Urrietako albistek



Zorion-agurrak



Andoaingo albistek



1976-77 DENBORALDIA. Jubeniletan Liga Nazionalera igo zen plantilla. Joseba Egibar, Jose Fadrique, Cesar Garcia, Javier Garcia, Manolo Garcia, Jose Garin, Rafael Garmendia, Pedro Gaztañaga, Joxe Mari Lopez, Jose Iruin, Juan Jandula, Pablo Jauregi, Narciso Matute, Ignacio Mugika, Juan M. Mugika, Francisco Ormaetxea, Constantino Perez, Loreto Sanchez, Juan Sueskun, Jose Usandizaga eta Eduardo Velaz. Argazkian, hailetako hainbat ageri dira Tolosako Berazubi futbol zelaian. ZATARAIN

Jubenil mailan nabarmendu zen belaunaldiari omenaldia

Hiru egunez luzatuko diren Etxeberrietako jaietan, 1976-1977 denboraldian, jubeniletan liga nazionalera igo ziren Euskaldunako jokalariei omenaldia egingo zaie, egin zuten balentria aitortzeko

UZTAILAK 29

LARUNBATA

11:00 Txupinazoa.
Ondoren: puzgarriak, umeen

jokuak eta tailerrak, eta txokolatada Kotoi elkartearen.

13:00 Tortila patata lehiaketa.

16:00 Mus txapelketa Kotoi elkartearen.

18:00 Sagardo dastaketa.

21:00 Afari-merienda zelaian.

22:00-03:00 Kontzertua:
Bengo eta Modus Operandis.

UZTAILAK 30

IGANDEA

10:00 XIV. Herri Krossa, Roberto Cabrejasen memoriale.

Ondoren, jubeniletan liga nazionalera igo ziren Euskaldunako jokalariei omenaldia.

12:00 Moto erakustaldia Pelontxuren eskutik.

18:00 Herri Kiroiak, Etxeberrietako belazean. Desafioa, Etxeberrieta eta Goiburu auzoen artean: txingak, harri jasotzea, lokotxak, zaku lasterketa, ingudea eta soka-tira.

19:30 Zumba erakustaldia, Etxeberrieta plazan.

20:30 Danborrada.

22:30-03:00 Musika dantzaldia, Alaiki taldearekin.

UZTAILAK 31

ASTELEHENA

10:00 Olagain txistulari elkartearekin, kalejira.

10:30 Goiburukoei ongi etorria.

11:30 Meza Santa Krutz elizan, Alberto Aguirre abesbatzarekin.

12:00 Kantu Jira..

20:00 Toka lehiaketa.

20:00 Sardina jatea.

20:30 Musika kontzertua, La Joderera taldearekin.

DESAFIOA JOKATUKO DUTE GOIBURU ETA ETXEBERRIETA AUZOEK HERRI KIROLETAN, IGANDEAN



Goiburuko emakume taldea elkartu zen, auzoko plazan. Bilkurak eman zuena, laster, Aiurri.eus gunean. Ezkerretik hasita Nati Munain, Eugeni Lopez de Munain, Angeli Lopez de Munain, Axun Jauregi, Miren eta Maitane Lopez de Munain, Tere Lopez de Munain, Mari Zipitria eta Mari Karmen txapartegi Izaro eta Aitor bilobekin. AIURRI



Baltzola eta Larrañaga, 2019ko jaietan. AIURRI



Alberto Agirre abesbatzak aurten ere emanaldia eskainiko du. AIURRI

Goiburuko jaiei ekiteko gogoz

San Inazio egunean auzotarrek oilasko biltzea egingo dute, eta jaiak Goiburuko santuarekin batera hasik dira. San Esteban egunean, hain zuzen. Auzunera igo eta jaitseko bus zerbitzua eskainiko dute, eginez eta gauez

UZTAILAK 31

ASTELEHENA

05:30 Oilasko jokuko kuadrillaren buelta, auzo guztian zehar.

15:00 Oilasko jokuko bazkaria plazan. Dantzak eta jolasa.

ABUZTUAK 3

OSTEGUNA

11:00 Festen hasera suziri eta kanpaekin. Bus zerbitzua 10:30ean hasita.

12:00 Meza eta Andoaingo abesbatza. Ondoren, hamaiketakoa plazan, Gora kaletxiki txarangak girota.

13:00 Pilota partidak.

14:00 Bazkaltzeko aukera egongo da bertan.

17:00-20:00 Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

17:00 Mus eta toka lehiaketa. Izen-ematea, bertan, 17:00tan.

20:00 Afaltzeko aukera egongo da bertan. Afal ondoren Baltzola eta Andonegi.

ABUZTUAK 4

OSTIRALA

19:30 Kantujiraren emanaldia.

19:30-21:00 Bus zerbitzua.

21:00 Auzo afaria frontoian. Txartelak salgai, Urratsen eta Txertotan, uztailaren 31ra bitarte. 30.00 euro. Egunean bertan, 35.00 euro. Haurrak 15 euro.

23:30-02:30 Laiotz taldea.

23:00-04:00 Gautxoria.

ABUZTUAK 5

LARUNBATA

11:30-14:00 Bus zerbitzua.

12:30 Desapiyua: Segaxeri Dantza.

14:00 Bazkaltzeko aukera izango da. Garagardo dastaketa herriko ekoizleen eskutik.

17:30 - 21:00 Bus zerbitzua.

18:30-20:30 Zuttik elektrotxaranga.

21:00 Afaria frontoian. Txartelak ostiraletik salgai, txosnan.

23:30-04:00 Gautxoria.

00:00-03:00 Muxutruk taldea.

ABUZTUAK 6

IGANDEA

12:00 Emakumezkoen eskuzko partidak eta Goiburuko V. pala txapelketako finalak.

17:00-21:00 Bus zerbitzua.

17:30-20:30 Erromeri maratoia, Lontxo Iraolaren omenez. Trikitilariak: Oier Balzola eta Unai Andonegi, Imanol eta Leire Astiasaran, Elustondo anai arrebak. Maratoiarekin batera sagardo probaketa plazan bertan, urtero bezala auzotarrek mimoz egindako patata tortilak ere ez dira faltako. Afal ondoren trikitilariak jarraituko dute azken indarrak amaitu arte.

22:30-00:30 Gautxoria.



andoaINDARRA
euskaraz



Ainhoa Aiertza eta Alazne Intxauspe, Buruntzako San Martin eliza zaharreko parke arkeologikoan. AIURRI

"Aurten, kultura kutsua dauka egitarauak"

AINHOA AIERTZA ETA ALAZNE INTXAUSPE BURUNTZAKO JAI BATZORDEKO KIDEAK
Kultur ekitaldiz jositako egitarauaren alde jo dute azken aldian, nahiz aurrekontu murrizta eduki

Xabier Lasa ANDOAIN

Gustura al zaudete atondu duzuen bi eguneko jai programarekin?

Ainhoa Aiertza: Bai, erabat! Bi milatik gorako aurrekontuarekin gabilta, eta gaur egun mirari handirik ezin da egin kopuru horrekin. Edozer gauza antolatzen hasten zara, eta agudo batean xahutzen zaizu eskuetatik.

Programazioan erreparatu gero, ekitaldiz beteriko bi jai egun topatuko ditu jai zaleak. Buruntzako jaiak pixka bat ezagutzen dituen edonor konturatu da kultura kutsuko ekitaldien (musika kontzertuak, dantza, bertsoak, antzerkia...) alde jo dela azken urtetan.

Alazne Intxauspe: Ahal dugun gutzia egin dugu, eta iruditzen zaigu egokia izango dela auzo eta familia giroko festekin denbora-pasa atsegina igarotzeko deseatzten dagoenarentzat. Bi egun horietan auzora hurbiltzen denak denetik egin ahal izango du: kalitatezko musika entzun, bertsoak entzun, arin-arin eta fandangoa dantzatu, tragoxka hartzearekin batera berriketan jardun auzokideekin edo aspaldian ikusi gabeko lagun horrekin. **Bigarren urtea da eskarmentu handiko musikariekin kontzertua antolatzen duzuela.**

A. A.: Bai, iaz probatu genuen, eta oso txukun irten zen, berta-

ratu ziren entzuleen gozamenerako izan zen erabat. Ziur gaudela Iñar Sastre piano-joleak, Javier Perez tronpeta-joleak eta Iban Gurrutxaga baxu-joleak osatutako hirukoteak iazko mailari eutsiko diola abuztuaren 15eko hitzorduan.

A. I.: Zehaztu behar dugu aurtengoa Udalarekin elkarlanean antolatu dugula; Udalak uztaila-abuzturako programatzen dituen kultur ekitaldietako bat izango da hauxe. Oso formula egokia eta jarraipena merezi duena da Udalak azken aldian abian jarri duen ekimen hori, hiru arrazoiengatik batik bat: kultura deszentralizatu eta auzoetara

zabaltzen duelako, auzoetako jai batzordeekin elkarlaketaz sustatzen duelako, eta gainera, publikoaren aldetik harrera ona eduki duelako orain arte gauzatu den auzoetan (Goiburu, Etxeberrieta, Karrika...).

Mendi-krosa erabat baztertu duzue, jada 2019an egin zen azken edizioa.

A. A.: 2019an, pandemia aurretik antolatu genuen azkenekoa, eta hausnarketa egiteko denbora eduki dugu geroztik, bateko eta besteko arrazoiak kontuan hartuta. Batetik, jakitun ginen azken urtetan ekitaldi bakarra zela San Roke ermitak eta auzolanean egindako aterpeak osatzen duten eremu horretan. Auzotarrentzat esanahi sinbolikoa eduki du historikoki goi-paraje horrek, eta horri eutsi nahi genion. Nolanahi ere, bestetik, ohartuta geunden auzotarrentzat egundoko ahalegina eskatzen zigula kirol proba horren antolakuntzak, energia xahutzen zigula eta eragozten beste eratako ekitaldiak antolatzea.

Oilasko Biltzea ere ez da jai programan agertzen jada.

A. I.: Krosaren urte berean egin genuen azkena, eta pena izugarria daukagu geroztik, betidaniko usadioa eten behar izan genuelako. Auzotarrei egundoko ilusioa egiten zien beren baserri edo baserri atarian auzoko gazteak ikustea jai giroan. Auzoko gazteen artean harremanak sakondu ez ezik, auzotarren arteko lotura, lagun-giroa, elkartasuna... sustatzen duen ekitaldi polita da, eta goiz ala berandu, behar diren gutxieneko parte-hartzaile gazteak ziurtatu bezain pronto berreskuratu nahi genuke.

Gogoratzen naiz zenbateko gazte kuadrilla osatzen zen auzoan, Ainhoa eta biok gazte-gazteak ginela lehenbiziko aldiz parte hartu genuenean. Hura zen zalaparta! Kostako zaigu lehengo hartara itzultzea, baina saiatuko gara Oilasko Biltze alai eta duin bat antolatzen. Horretan gabilta.

A. A.: Erradiografia azkar bat eginda, esan behar da 60-70 baserri eta etxeetan sakabanatutako 300 bat pertsonak osatzen dugula Buruntza auzoa, gutxi gora behera. Euskal Herrian bezalaxe, auzoan ere baxua da jaiotza-tasa. Zahartzen ari den komunitatea da gurea, besteak beste gazte asko auzoa utzi eta Andoainera edo inguruko herrietara bizitzera joaten ari baitira. Horixe da errealitatea.

Egitaraua

Abuztuak 15, asteartea 19:00. "Han eta hemengo musikak" Kontzertua, Iñar Sastre, Javier Perez eta Iban Gurrutxagarekin.

20:15. Patata tortilla lehiaketa eta postre lehiaketa.

20:30. Afaria, lehiaketara aurkeztutako jakiekin.

21:15. "Kris eta Krash ile-apaindegia" antzerkia.

Abuztuak 16, asteazkena, San Roke eguna.

10:00. Olagaineko txistularien kalejira.

10:30. Meza auzoko hildakoen alde Buruntzako San Martin parke arkeologikoan.

11:00. Soka Dantza txistularien eta Urki dantza taldeko kideen eskutik.

11:30. Gora Kaletxiki Txaranga, "Buruntza" abestiaren estreinaldia.

12:15. Binakako Toka Txapelketa Mistoa.

13:00. Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsotan.

13:30. Bertso-bazkaria, Amaia Agirre eta Iker Zubeldiarekin, Gaztañaga sagardotegian. Txartelak salgai (35€) Urrats inprimategian (goizez) eta Elizondo tabernan (abuztuaren 12a arte).

Edo deitu sagardotegira: 943 59 19 68.

18:00-20:00. Erromeria. Elustondo anai-arreben eskutik, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean (euriarekin sagardotegi barruan).

Biztanleen zahartze horrekin lotuta, adibidez, adineko auzotar askok aspaldi utzi zioten San Rokera igotzeko usadioari, mugikortasun arazoak medio. Meza behealdera, San Martin eliza zaharreko aurrietara ekartzea erabaki genuen orain urte batzuk, eta asmatu egin genuen. Mezak adineko jendea erakartzen du batez ere, eta arrakastatsua gertatu ohi da. Estimatzten dute auzoan behean egitea, meza ostean jaiekin gozatzen segitzeko aukera ematen baitie.



Aurora Beltran kantariaren emanaldiak ikusmina piztu zuen. AIURRI

Jaiari eutsi diote Karrikan

Eta nola gainera! Jendetza elkartu zen ostiralean, eta festazaleak auzoko jaietz gozatzen aritu ziren goizaldera arte. Udaberrian, jaiak kolokan izan ziren arren, azken txanpan asteburu osoko egitaraua osatu dute. Jaiari eutsi ahal izan diote, zorionez

Xabier Lasa ANDOAIN

Komunitateak, gizarte bizitzak, behar du jaiak. Auzotarrak elkartzeko aukera da, eta zer hobe ospakizunak eskaintzen duen giro lasaian egitea baino? Zailantza nagusitu zen udaberrian, jairik izango ote zen ezbaian jarri zelako. Zorionez, azken asteotako txanpari esker, asteburu osoko egitaraua prestatu zuten. Hasiera jendetsua izan

zuen jaiak, Aurora Beltranen kontzertuak erakarrita. Bero zakarra egin zuen egun osoan, baina, iluntzerako, tenperatura jaitsi eta giro ederreko gaualdia izan zen. Jana eta edana banatzen lan handia izan zuten txosnan. Gaua luzatu bazen ere, larunbat goizean jarraipena izan zuen jaiak. Haur eta gaztetxoek mailako marrazki lehiaketa egin zuten, 2024ko jai egitaraua abe-

rasteko erabiliko dutena. Mus txapelketa eta DJ saioa nabarmendu ziren larunbatean. Eta, igandean, bereziki, bi hitzordu. Eguerdiko sagardo-dastaketa, eta iluntzeko play-back emanaldia. "Pobre de mi"rekin agurtu zituzten aurtengo jaiak.

Jomugan, 2024ra begira, asmo argia irudikatzen da: 2024an jaiak antolatzeko ziurgabetasunik ez izatea.

Jaiak gauzatu izanaren poza



Jai Batzordeko kideak, ostiral arratsaldean. AIURRI

Txupinazoa Iluntzean, tenperatura beroenak jaisten hasi zirenean, aurtengo jaietz hasiera eman zioten. Gogo berezia zegoen, eta festazaleek ordu txikiak arte jaietz gozatzeko aukera izan zuten.



Sagardo dastaketa, igande eguerdian. AIURRI

Sagardo dastaketa Badira egitarautik kendu ezin diren ekitaldiak. Sagardo-dastaketak, esaterako, hasiera bikaina eman ohi dio jaietzko igandeari. Haurren marrazki-lehiaketa, play-back saioa eta "Pobre de mi" kantua.



Meritu handia izan zuten taula gainera igo eta jendaurrean aritu zirenek. AIURRI

Play-back emanaldia Haur eta gazte ugari hurbildu zen igande arratsaldean, Karrikara, Play-back saioan, ikusmina sortzen duen ekitaldian, auzokide asko dantzan eta antzerkia eginez aritzen direlako.



Dukha taldeko kideak, ostiral gaueko emanaldian. AIURRI



Ostiralean, jarduera fisikoetan trebatzeko aukera izan zen. AIURRI



Zumba emanaldia, ostiral arratsaldean. AIURRI



Adin guztietako partaideak elkartu ziren play-back emanaldian. AIURRI



Emakumeei esker ari da play-back emanaldia gauzatzen. Martxosenak dira. AIURRI



Play-back saioaren argazki-bilduma eta bideoa ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Pintxoak janez eta sagardoa dastatuz, hasiera eman zioten igandeko ospakizunari. AIURRI



Ezkerrean, PSE-EEko ordezkariak. Ondoan, EAJ-PNVko udal taldea. Eta, eskuinean, EH Bilduko zinegotziak. AIURRI

Ardurak banatu dituzte

Pixkanaka, itxura hartzen ari da Urnietako Udala, datorren laurtekorako. Ardurak, liberazioak eta ordezkariak onartu zituzten, EAJ-PNVren eta PSE-EEren aldeko bozkarekin. Ez zuen bozketan parte hartu nahi izan EH Bilduk

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Martxan da, datozen lau urteei begira, Urnietako Udala. Udaleko arduradun eta ordezkari berriak izendatzeko osoko bilkura egin zen joan den ostegunean. Bozka bidezko hautaketa egin zen: EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek aldeko botoa eman zuten afera guztietan. Ez zuen besorik altxa EH Bilduk.

Sailetako arduradun politikoak

- Hirigintza: Mikel Martiarena (EAJ).
- Zerbitzuak: Mikel Artola (EAJ).

- Trantsizio Energetikoa: Herme Gonzalez (PSE-EE).
- Berdintasuna: Ainhoa Ostolaza (EAJ).
- Kirola: Ainhoa Ostolaza (EAJ).
- Hirugarren adina: Consuelo Frutos (PSE-EE).
- Kultura: Ana Pozas (EAJ).
- Turismoa: Ana Pozas (EAJ).
- Merkataritza: Ana Pozas (EAJ).
- Gazteria: Mikel Artola (EAJ).
- Hezkuntza: Mikel Artola (EAJ).
- Euskara: Mikel Artola (EAJ).
- Antolakuntza: Agurtzane Mercader (EAJ).
- Gizarte Zerbitzuak: Consuelo Frutos (PSE-EE).

Tokiko Gobernu Batzordea

- Agurtzane Mercader (EAJ).
- Ana Pozas (EAJ).
- Herme Gonzalez (PSE-EE).
- Eujen Garmendia (EH Bildu).

Alderdietako bozeramaileak

- EAJ: Agurtzane Mercader.
- EH Bildu: Eujen Garmendia.
- PSE-EE: Herme Gonzalez.

Liberazioak

Egun osoko jardunean egongo da lanean Jorge Segurado alkatea 63.999,96 euroko ordainsariarekin. Gainerako liberazioek, berriz, %50eko dedikazioan



EH Bilduko udal taldea, uztailaren 13ko plenoan. AIURRI

EH Bilduren protesta, lehen plenoan

Udal Gobernuan parte hartzeko atea itxi zaiela salatuz hasi zuen EH Bilduk Udabatzatza eratzeko osoko bilkura. Hala, honela zioen mahaian itsatsi zuten mezuak: "PNV, 1057 bozka, 6 zinegotzi, 4 batzorde presidentetza. EH Bildu, 873 bozka, 5 zinegotzi, 0 batzorde presidentetza. PSE-EE 375 bozka, 2 zinegotzi, 2 batzorde presidentetza. Partaidetza???...". Jorge Segurado alkatea mezua kentzea eskatu zion oposizioko kideei. Haien ezezkorearen aurrean, udaltzaingoiari deitu zion eta hark kendu zuen aldarrikapena mahaitik. Ondoren, osoko bilkurari jarraipena eman zioten.

gauzatuko dute beren jarduna: Agurtzane Mercader Antolakuntza Batzordeko presidentea, Ana Pozas Herriargoa Batzordeko presidentea, Consuelo Frutos Gizarte Zerbitzuako presidentea, Eujen Garmendia EH Bilduko bozeramailea. Era berean behin-behineko langile bat izango da komunikazio-arduradun gisa, lanaldi osoan, 46.982,35 euroko ordainsariarekin.

Erakundeetako ordezkariak

- San Markos Mankomunitatea: Jorge Segurado (EAJ) eta Herme Gonzalez (PSE-EE).

- Haur Eskolen partzuergoa: Mikel Artola (EAJ).
- Añarbe: Jorge Segurado (EAJ).
- Behemendi: Mikel Martiarena (EAJ).
- Egape Ikastola kontseilua: Ana Pozas (EAJ).
- Azkorte DBH eskola kontseilua: Ana Pozas (EAJ).
- Magale HH-LH eskola kontseilua: Mikel Artola (EAJ).
- Magale Salestarrak eskola kontseilua: Mikel Artola (EAJ).
- Eudel: Jorge Segurado (EAJ).
- Beterri Buruntza Mankomunitatea: Jorge Segurado (EAJ) eta Consuelo Frutos (PSE-EE).

Plenoaren bezperan akordioa iragarri zuten EAJ-k eta PSE-k

Sozialisten eta jeltzaleen arteko akordio zabala Urnietan ere eman da. Seguradok eta Gonzalezek aurkeztu dute

Erredakzioa URNIETA


Udalbatzaren eraketaren bezperan iragarri zuten albiste ofiziala: datozen lau urteei begira, gobernu-akordioa hitzartu dute EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek, Urnietako Udalean. Hala, Jorge

Segurado alkatea izango du buru koalizioak, Herme Gonzalez herriko sozialisten ordezkarien babesarekin.

Urnietako Udalak adierazi duenez, bi alderdiek beren programetan komunean dituzten

lan-ildoak dira hitzarmenaren muina. Hala, adineko pertsonen arreta, etxebizitzaren auzia, gazteen beharrak, Bigarren Hezkuntzako eraikin berriaren eraikuntza eta beste hainbat lan-ildo jorratzea dute xede biek ala biek.

Adostasun horren harira, aginteko zenbait sailetan arduradun izateko aukera edukiko du PSE-EEK, hala nola, trantsizio energetikoan, gizarte-zerbitzuetan, bizikidetzan eta hirugarren adinean.



Seguradok eta Gonzalezek sinatu zuten agintaldirako akordioa. UDALA



Saioa Martinez Fonseca eta Garazi Jauregi Lopez. AIURRI

“Euskararen erabilera sustatzen ahalegintzen gara, jolasaren bidez”

SAIOA MARTINEZ ETA GARAZI JAUREGI EGUZKITAN BLAI-EKO BEGIRALEAK Herriko udalekuan murgiltzeko aukera izaten dute uztailaren bueltan urnietarrek, Hezten-en eskutik. Bi aukera dituzte: Eguzkitan Blai eta kirol udalekuak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Eguzkitan blaitzen dira urtero-urtero Urnietako haurrak, udalekuan. Euskara oinarri, makina bat ekintzez gozatzeko aukera izaten dute umeez, aisialdi-eremuan. Bertako begirale dira Garazi Jauregi Lopez eta Saioa Martinez Fonseca.

Zer moduz orain arteko martxa?

Garazi Jauregi: Lehen eta azken astean, normalean, ume gutxiago izan ohi dugu. Izan ere, astez aste eman dezakete haurrek izena. Malgutasuna ematen die horrek familiei. Umeez, 10:00-13:00 egon ohi gara. Kirol udalekuetakoak, berriz, ekintzaren arabera moldatzen dute goiza, maiz, herritik kanpo ere irteerak egiten dituztelako.

Adinaren arabera bost txandatan antolatu duzue Eguzkitan Blai, ezta?

Saioa Martinez: Bi eraikinetan gaude. Txikienak Egape Ikastolako Haur Hezkuntzan egon ohi dira eta Lehen Hezkuntzako umeak Azkorteke eraikinean. 6-8 urte bitartekoekin nabil ni, begirale-lanetan.

Orokorrean, adin-tarteak berezita egiten ditugu ekintzak.

Urnietako zein txokotan aritzen zarete jolasean?

S.M.: Sarritan joaten gara Berra-soeta parkera, askotariko ekintzak egiteko aukera bermatzen digulako.

G.J.: Herriko osasun-bideak egin ditugu, baita Hernanira joan eta etorri ere, aintziratik. Bestalde, Padelean aritu gara, Ariman.

S.M.: Azken astean, ume gutxiago daudenez, hondartzara joaten ahalegintzen gara, guztiak elkarrekin.

Eguraldiak zenbateraino baldintzatu du zuen jarduna?

S.M.: Dezente mugatu gaitu, bai. Plangintza bat egin genuen, udalekuak hasi aurretik. Ba-

tzuetan, ordea, gauzak ez dira nahi bezala gertatzen. Hortaz, inprobisaziorako gaitasuna ere badaukagu. Bada, eguraldiari dagokionez, hori bera gertatu zaigu, zenbait egunetan.

G.J.: Azkorteke eraikina txikia da horrenbeste umerekin egoteko. Ikasgeletan ez egoten ahalegintzen gara, baina jolastokiko estalpean, ez gara kabitzen. Horrelakoetan, pilotalekua erabili izan dugu.

Behin eskola amaituta, aukera ederra dute haurrek, udalekuei esker, lagunekin denbora igarotzeko.

S.M.: Hasieran, bi eskolen bereizketa nabarmenagoa da. Konfiantza irabazi ahala, gehiago nahastu dira, eta aberasgarria da hori haurrentzat. Orain, elkarrekin ibiltzen dira guztiak.

Eta euskaraz hitz egiteko...? Kaleneurketak dioenez, 2021 urtean, erabilera % 21,1 ekoa zen euskararen erabilera herrian.

G.J.: Euskararen erabilera txikia da umeen artean. Begiraleongana euskaraz zuzentzen dira beti, baina, beren artean, lehen hitza gaztelaniaz izan ohi da. Horregatik, euskararen erabilera sustatzen ahalegintzen gara, jolasaren bidez. Zaila da, ordea, ezer gutxi egin baitaiteke hilabete eskasean.

Zer ematen dizue udalekuan lan egiteak?

G.J.: Betidanik gustatu izan zaizkit umeak, poztasun handia ematen didate. Horregatik, oso gustuko dut udan ere beraiekin egotea, elkarrekin nola jolasten duten ikustea, eta gu horien parte izatea.

S.M.: Ez du inolako zerikusirik nire ikasketekin, baina oso gustuko ditut nik ere haurrak, asko ikasten dut beraiekin. Bizitasuna ematen didate umeez.



Urnietako
udala



Goiburun jokatzeko ari dira. AIURRI

29 bikoteren arteko lehia Goiburuko pala txapelketan

Ekin zaio Goiburuko pala txapelketari; ikusmira eta lehia handia da, herrikide zein lagunaren artean

Mikel Arberas ANDOAIN

Uztailaren 7an amaitu zen Gaztetxekeko pilota txapelketa; jendetza bildu zen Goiburuko frontoian, eta auzoari bizitasun handia eman zion. Bada, oraingoan, pala txapelketari ekin zaio eta Goiburuko jaiak bitarte iraungo du.

Azken urtetan, txapelketa herrikoiek garrantzia handia hartu dute Andoainen, izan ere, frontoiei erabilera emateaz gain, jokatzeko ez dutenen artean afizioa sorrarazten du eta euskal kulturari estuki lotutako kirolei bulzada garrantzitsua ematen zaie; adibide garbia dira, Iturzaeta eta Goiburuko pala txapelketak edota Gaztetxekeko pilota lehiaketa.

Txapelketa bete-betean

Txapelketa hastearekin batera hamarnaka kide biltzen ari dira Goiburuko frontoian. Hogeita bederatzi bikote parte hartzen ari direnez, ia egunero jokatuko dira norgehiagokak, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Zortzi taldetan banatuta ligaxkako partidak jokatu dira, eta, ondoren, hurrengo fasera jauzi egingo dute.

Finalak eta hirugarren zein laugarren postuetako norgehiagokak Goiburuko jaietan jokatuko dira.

Gibraltarreko zeharkaldia osatzea lortu du, 77 urterekin

Igeriketa erronka hori burutzea lortzen duen kirolaririk edadetuena da Txaro Tomasena urnietarra

Erredakzioa URNIETA

"Erronkarik inportanteenetan inportanteena" gauzatzea lortu du, berriki, Txaro Tomasena urnietarra. Horixe aitortu zuen Aiurrin, iazko maiatzean: "Inportanteetan inportanteena,

Gibraltalgo itsas-zeharkaldia da. Izan ere, mugara eramango dut gorputza: erritmo jakin batean egin behar dut, sei edo zazpi bat orduz". Sekulakoa, beraz, urnietarraren lorpena. Zorionak!



Txaro Tomasena, iazko maiatzean, Aiurriri eskainitako elkarriketan. AIURRI



ZUMEATARRA

Garaipena, bi egunetan jarraian

Javi Menta sasoiko dabil. Aurreko larunbatean Astigarragako II. Herri Krosean gailendu zen. 5,7 kilometroko lasterketa zen. Biharamunean, Trintxerpeko jaietan ere garaipena eskuratu zuen. Zorionak! Argazkian, Unai Somovilla eta Aitor Muruarekin batera, Trintxerpeko Karmen jaietako krosa amaitu berritan.



UDALA

Ikastaro eskaintza zabala

Uztailaren 24an irekiko da jarduera fisikoa egiteko eta osasuna zaintzeko ikastaroetan izena emateko aukera. Irailaren 10a arte iraungo du aukerak. Gainera, aurtan, berritasun moduan 12-16 urte bitarteko gazteentzako eskaintza berezia eskainiko da. Ikastaro bakoitzerako ezarritako prezioa %20 murriztuko da Urrietako erroldatuen kasuan, baldintza batzuk beteta.



Lau finalistak Galarreta frontoian. ORIAMENDI

Eskudero-Zaldua eta Barrenetxea-Juanenea garaile

Bi final ikusgarriz gozatzeko aukera eduki zuten pilotazaleek. Norgehiagoka biziak eta maila handikoak

Mikel Arberas ESKUALDEA

A taldean Barrenetxeak eta Juanenea irabazi dute Jai Alai Summer Season txapelketa, Azpirozi eta Larrañagari bi set-ak irabazita (13-15 eta 14-15). Gorridunak hobeak izan ziren arren, partidak amaitzeko arazoak izan zituzten, ondorioz, Barrenetxea eta Juanenea izan ziren garaileak.

Bi set-ak oso antzekoak izan ziren. Urdinak 3-6 eta 3-7 irabazten hasi ziren, baina gorriek buelta eman zioten markagailuari, aurkariak baino segurua go zeudelako. Horiek horrela, Azpiroz eta Larrañaga bi setak

irabaztetik hurbil geratu ziren, bederatzina berdinduz eta 13-9 eta 14-10 markagailuan ihes egingez. Baina, esan bezala, Azpirozek eta Larrañagak ez zute partida amaitzen jakin.

B taldean, Zalduak eta Eskudero erremonteko Summer Session lehiaketa irabazi zuten, Goikoetxea-Aiestaran bikotearen aurka (2-1). Norgehiagoka berdinduak izan ziren, eta edonork irabaz zezakeen. Azken set-eant erabaki behar izan zen guztia, eta, Eskudero-Zaldua bikotea partida hobeto amaitzen jakin zuen.

www.aiurri.eus



KIROL ALBISTEAK



Mou Team. AIURRI



Aguanis. AIURRI




Katalina Wildcats. AIURRI




Suzko Uzkie. AIURRI

3x3 txapelketa bete-betean da

Eguraldiak lagunduko balu, ostiralean, finalerdiak, txu bol eta hiruko jokoa, 3. zein 4. postuak eta finala jokatuko dira, hurrenez hurren. Ondoren, sari banaketa eta lunch-a egingo da. Eguraldiaren txarrarekin egunez alda daiteke finala



Los Dementes. AIURRI



Iruito. AIURRI



Mixto Serrano. AIURRI



Xiclana. AIURRI



MPA. AIURRI



Recreativo de Juerga. AIURRI



Not in my house. AIURRI



Ambizurdos. AIURRI



Satorrak. AIURRI



Geriatrik. AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 20

ANDOAIN Udan zinema kalean
"Tadeo Jones 3, la tabla esmeralda". Euriarekin, Ondarretan. 19:00, Goikoplaza.

IGANDEA 23

ANDOAIN Kale antzerkia
"Eutsi Ramon!" kale antzerkia, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik. Kalea probaleku bilakatu eta lehiaketa antolatuko dute. 20:00, Goikoplaza.

ANDOAIN, URNIETA Bozak
Hauteskunde Orokorak deitu dituzte, igande honetarako. Kongresurako eta Senaturako hautagaiak aukeratu behar dira. *Emaitzak Aiurri.eus webgunean.*

ASTEARTEA 25

ANDOAIN Kale antzerkia
"Full house" hitzik gabeko antzezlan, maisulana. Animalien bitartez, giza kondizioari buruzko hausnarketa da, umorez ziprztinduta. 19:30, Otieta.

ASTEAZKENA 26

ANDOAIN Auzoz auzoko bilerak
Andoingo Udala auzoz auzo ibiliko da, agintaldiaren hasieran. Tartean, Buruntzan. *Buruntza.*



ANDOAIN, URNIETA Donostiako Klasikoa, eskualdean barrena

Mundu mailako lasterkari onenak bertatik bertara igaroko dira, uztailean bigarren aldiz jarraian. Ohi bezala, Adunan barrena sartuko dira Sorabillan eta herriguneak zeharkatu ondoren Hernani aldera abiatuko dira. *Uztailak 29, larunbata. Aurrikuspena: 13:16, Andoain / 13:21, Urnieta.*

URNIETA Jai Batzordearen bilera
Sanmielei buruzko erabakiak hartzeko bilera deitu dute. Besteak beste, jaietako kartelaren hautaketa egiteko eta jaietako hasiera emango diona aukeratzeko. 18:00, Lekaio.

OSTEGUNA 27

URNIETA Deialdia
Donostiako Klasikoa uztailaren 29an da, eta trafikoa bideratzeko lagunak behar dituzte. Izena eman daiteke urnieta.eus webgunean. *Izena emateko azken eguna.*

OSTIRALA 28

ANDOAIN Auzoz auzoko bilerak
Andoingo Udala auzoz auzo ibiliko da, agintaldiaren hasieran. Tartean, Etxeberrietan. *Etxeberrieta.*

LARUNBATA 29

ANDOAIN Kontzertua
Bengo artista zuzenean ariko da. Haien ondoren, Modus Operandi taldeak kontzertua eskainiko du. 22:00, Etxeberrieta plaza.



AIURRI

Eraikuntza-lanak iragarri dituzte

Ama Kandida etorbidean birpartzelazio proiektua onartu da, behin-betikoz, Andoingo Udalak sare sozialen bidez zabalduko oharren arabera. Ondorioz, epe laburrean, etxebizitzaren eraikuntzari hasiera ematea aurriratu dute. Ohar berean, Etxeberrietako egitasmoan murgilduta daudela iragarri zuen Udalak.



AIURRI

Tuduriren poesia errezitaldia

Nerea Tuduri andoaindarrak poesia errezitaldia egin zuen Xarma tabernan, Igor Tuduri soinu sortzaileak eta Mono Irazi gitarra-joleak lagunduta. Bere bi liburu oinarri hartuta, gai pertsonalak eta sozialak tartekatu zituen. Besteak beste, Alzheimerra jasan zuen amari eskainitakoak, Algodonerako emakumeen historia eta haurrenganako sexu indarkeria.

Albisteak, udan, Aiurri.eus webgunean

Udako jaien jarraipena, egunero sor daitezkeen albisteak eta ekitaldi berezien kronikak, Aiurri.eus-en

Erredakzioa URNIETA
Aiurri.eus webgunea egunero zabalik da, urte osoan. Bertatik eskaintzen den informazio-jarioa ez da txikia. Multimedia edukia soilik kontutan hartuta, 2023ko honetan 600 bideotik gora eta

320 argazki-bilduma argitaratu dira. Udan, informazio-jarioa jaisten bada ere, albisteak leihoa zabalik izango du erredakzio taldeak. Leihorik Aiurri.eus webgunea da, eta haren luzapenak dira Twitter, Facebook eta

Instagram sare sozialetako profilak. Auzoetako jaiak, Frantziako Tourraren amaiera, Espainiako Vueltaren hasiera... Hitzordu horien jarraipena egin ahal izango du Aiurriko irakurleak. Eta, horrez gain, udan sor daitezkeen gainerako albisteak. Argazki-bildumak, bideoak eta agenda izango dira, beste urte batez, irakurlearen arreta bereganatuko duten atalak.

Paperezko edizioa irailean itzuliko da, irailaren 6an hasita. Uda on, irakurle!



Edizio digitala zabalik izango da udan. AIURRI



IN MEMORIAM

IRUBERRI ELKARTEA ANDOAIN

Gu sortu ginen enbor beretik...

Ekainaren 15ean joan zen Maria Jesus Madinabeitia Letamendi herrikidea gure artetik. 63 urte betetzeko bidean zen, gogor heldu nahi izan zion bizitzari azken egunera arte, baina gaixotasun gaizto batek eraman du halabebarrez.

Familia giroan, kalean, elkartean, lagunartean... bizitasun eta kemen handiko emakume gisa ezagutu genuen, beti. Makina bat arrazoi zituen bizitzen segitzeko, eta horiei bat berezi-berezia batu zitzaian martxoan mundura etorri zen Enara biloba txikiarekin;

bizipoza gertatu zen, benetan, Maria Jesusentzat.

Andoaingo herriari eta gizarteari begira, hasiera-hasieratik sinetsi zuen Iruberrri elkartearen premiaz. Ondo jabetuta zegoen bertako euskaltzale, abertzale eta soberanisten topagune izango zen leku batek Andoaingo herriari eta gizarteari ekar diezaikeen ongizateaz herrigintzan, kulturgintzan, naziogintzan, bizikidetzan... Eta horrexegatik, lehenbiziko bultzatzaileetakoa izan zen elkarteak ateak ireki zitzaizkion 1998an.

Alde horretatik, aitortza zor diogu, irmoki bezainbat eskuzabaltasunez jarraitu zuelako sinesten elkartean, elkartearen egitasmoan eta elkarte osatzen dugun guztiongan.



Udal ordezkariak eta Hurria-Sahara elkarteko kideak, harrera familiarekin batera. AIURRI

Ongi etorria, Lansari

Andoaingo Udalak harrera egin dio, bigarren urtez jarraian, Tindufen bizi den Lansari Lahdih Brahimi gazteari

Erredakzioa ANDOAIN

Mendebaldeko Saharako Tindufetik iritsi da Andoainera Lansari Lahdih Brahimi gaztea. Udan errefuxiatuen kanpalekua utzi eta gure artean izango da. Harrera egin dion familia iazko berdina da. Udan Yune Moreta eta Cruz Tedone eta horien lau urteko semearekin bizi da. Abuztuaren 28ra bitarte Euskal Herrian biziko da, beraz. Aste honetan Andoaingo Udalak harrera egin dio, udaletxeko pleno aretoan egin zen ekitaldian. Bertan ziren ordezkariak duten lau alderdiak eta Hurria-Sahara elkarteko kideak.

"Oporrak bakean"

Elkartasun programari esker, udan desertuko gogortasunetik atera eta beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ematen zaie Saharako haurrei. Euskal Herrian egiten duten egonaldian, osasuna eta elikadura hobetze-



Lansari, Andoaingo familiarekin. AIURRI

ko aukera eduki ohi dute, eta aldi berean, herrian bertan egiten diren hainbat ekintzatan parte hartu ahal izango du, gainerako gaztetxoekin batera.

TINDUFEKO KANPALEKUEAN BIZI DEN GAZTETXOAK ANDOAINEN IZANGO DA, UDA HONETAN

Euskadiko txapelaren bila

Gipuzkoako txapelketa eskuratu eta gero, Euskadikoaren bila abiatuko da urnietarra. Euskadiko Segatxapelketa datorren uztailaren 22an izango da, Zizurkilen. Julen Gabirondo, Mikel Lizartza, Oier Urkola eta Jokin Etxeberria izango dira lehiakideak. Hitzordua arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Nekola baserriko belazean.



AIURRI

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Ane

Ane Lopezek 10 urte beteko ditu uztailaren 31n. Aurtengoa non tokatzen da ospatzea? Oporretatik bueltan elkarte gara behar bezala ospatuko! Oso ondo pasa! Muxuak etxeko guztien partez.



URNIETA

Zorionak Izaskun

Izaskun, zorionak! Zortzigarren urtea betetzen duzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN

Zorionak Onintza!

Onintzak laster urteak beteko ditu. Ondo-ondo pasa urtebetetze egunean, eta oporraldian! Jare, amatxo, aitaxo eta etxeko guztiak.



URNIETA

Zorionak aita!

Uztailaren 26an urtebete gehiago! Jarraitu zaren bezalakoa izaten! 60 muxu handi etxekoekin partez, MAITE ZAITUGU!



URNIETA

Zorionak Anetxu!


Abuztukoia izanagatik, etzea oparixko honetaz libratuko... Hogeita bost kilo zorion aurreraturak, rubia! Aze opariya dan mende laurdeneko birria zukin partekatzia. Ta holaxe segi dezagun, bizitza ospatzen... Gaurkua zuregatik, topa!

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

**Eskelak
Aiurri eta
Aiurri.eus-en:
90 euro**

Okm:
batzen gaituen
distantzia



**Mendira,
hondartzara,
festara...**

**Uda honetan ere zurekin
eramango gaituzu**

